

# Funtsezko lezioei buruzko informazio-laburpena

BID-REX lehen tailerreko ondorio nagusiak

2017ko otsailaren 22 eta 23a, Eghezée (Namur, Valonia)

Erabakiak hartzen dituzten arduradunen informazio-beharrizanak

BID-REXen asmoa da naturaren balioa hobe kontserbatzea, eskualde-garapeneko politika hobeei esker, biodibertsitateari buruzko datu adierazgarrien eta kontserbazioari buruz erabakitzeko prozesuen arteko lotura sortuz/sendotuz. Zehazkiago, bere asmoa da biodibertsitateari buruzko informazioa errazago erabiltzea eta Europako natura-ondarea kontserbatzeko FEDERen diru-esleipenaren eragina areagotzea.

Naturaren kontserbazio-politikaren testuinguruan, biodibertsitateari buruzko datuak zuzentasunez erabili behar dituzte kontserbazioaren profesionalek eta erabakiak hartzearen arduradunek, harekin lotura duten kudeaketako neurri eta erabakiek izan ditzaketen ondorioak eta inpaktuak ulertu eta kontuan hartzeko. Datu orokor, sendo eta eguneratuen eskuragarritasuna ezin besteko baldintza izan behar da biodibertsitate-galera lantzerako bideratutako politikak, estrategiak eta neurriak aplikatzeko, biodibertsitateari buruzko helburuak lortzeko aurrerapenak ikuskatzeko eta biodibertsitatearen egungo eta etorkizuneko egoera ebaluatzeko.

Testuinguru horretan, BID-REX eskualde arteko lehen tailerra egin zen; bertan, erabakiak hartzen dituzten Europako zazpi eskualdetako arduradunek parte hartu zuten nagusiki. Tailer horretarako helburu hauek ezarri ziren: eskualdeko biodibertsitateari buruzko datu-tratamendurako egungo prozesuak ebaluatu, eskualdeko bitarteko politikoen egungo egoera kontzeptualizatu, eta erabakiak hartzen dituzten arduradunen datu-beharrizanak definitu eta karakterizatu.

Tailerreko eztabaidetan agertutako ideia nagusiak kontserbazioari buruzko erabakiak hartzeko informazio-beharrizanei buruzko lau alderditan laburbil ditzakegu: erabakiak hartzen dituzten arduradunek informazio-beharrizanak adieraztea; beharrizan horiei erantzuteko biodibertsitateari buruzko informazio-azpiegiturek duten garrantzia; erabakiak

hartzeko prozesuen informazio horren erabilera eraginkorra; azkenik, kontserbazio-politiken informazioaren inpaktu erreala. Ondoren, konklusio nagusiak laburbiltzen dira.

Erabakiak hartzeko prozesuan, azken erabakian faktore ugari, eta ez bakarrik biodibertsitateari lotutakoak, eragiten dute eta jokatzen dute elkarrekin. Testuinguru horretan, ezin bestekoa da biodibertsitateari buruzko informazioa prozesuko fase goiztiar batetik bat etortzea erabakiak hartzen dituen arduradunaren beharrezanekin eta eskaerekin, azken erabakiaren eraginaren oihartzuna areagotu eta al bait handiena izan dadin.

## ‘Informazio-beharrizanak’ adierazi

Erabakiak hartzen dituzten arduradunek ‘informazio-beharrizanak’ edo -betekizunak zehaztea funtsezko fase bat da ekintza eta exekuzioa eraginkorrek izateko, lauso edo gaizki adierazitako beharrezanek gaizkiulertuak eragin baititzakete, eta helburuekin bat ez datozen



datuak edo informazioa helaraztea. Gainera, datuak eta informazio-beharrizanak argi eta eraginkortasunez adierazteak eragina izan dezake inbentarioa egiteko metodologian edo datu-hornitzaileak datu-tratamendua lantzeko eran eta, horrenbestez, garrantzizkoa da prozesuko fase goiztiar batean gai hori aztertzea.

Testuinguru horretan, gomendio-sorta bat zehaztu da erabakiak hartzen dituzten arduradunek edo datuen azken erabiltzaileek beharrezan adieraz ditzaten:

- Azken erabiltzaileak eta datu-hornitzaileek elkarrizketak maiztasunez eduki
- Datu-beharrizanak argi eta garbi definitu, beharrezkoa bada horiek formalizatuz, bertan sartuz nahi den zehaztasun maila eta beharrezko interpretaziorako tartea
- Baliagarria izan daiteke erabakiak hartzen dituzten arduradunak eta datuen azken erabiltzaileak datuak biltzeko metodoetan inplikatzeko, eta haiei buruzko iruzkinak eta iritziak adieraztea

### Gora

*Datu-bilketa, tratamendu eta datu-erabilera fase eta ekintzak*

- Datu-eskatzaileek argi eta garbi adierazi behar dute datuak erabiliko diren testuingurua
- Datu-hornitzaileek testuingurua eta eskaera ulertzen dutela bermatu
- Prozesua datu-hornitzaileen zein azken erabiltzaileen ikuspegitik maiztasunez ebaluatu
- Sortzen den edozein arazo argi eta garbi jakinarazi

## Biodibertsitateari buruzko informazio-azpiegiturak

Biodibertsitateari buruzko informazio-azpiegiturek erantzun egokia eman dezakete informazio-beharrizan horietarako; azpiegiturok kalitate oneko datu fidagarrietan oinarritu behar dira, erabaki-testuingurua kontuan hartuz zuzentasunez interpretatuak izan daitezten. Biodibertsitateari buruzko informazio-azpiegiturak tresna bereziki egokiak dira horretarako; izan ere, aukera ematen dute datu heterogeneoak estandarizatu, partekatu, epe luzerako gorde eta aztertuak izateko eta, azken batean, fidagarri eta adierazgarriak egiten dituzte.

Datuekin erlazionatutako azpiegituren eragina bermatzeko, datu-kudeatzaileen gomendio batzuk zehaztu ziren:

*Datuen kalitatea, datuen testuingurua kontuan hartzen duen interpretazioa, eta datuen konfiantza: erabakiak hartzen dituzten arduradunentzako faktore erabakigarriak*

- informazio-lehentasanak argi eta garbi identifikatu, erabakiak hartzearen arduradunen legezko mandatu eta erantzukizunetan oinarrituta
- Finantza-baliabideak eta sareak al bait hobekien erabili, biodibertsitateari buruzko informazioa erabakiak hartzeko prozesuetarako oinarri gisa baliatzeko.
- Kalitatezko datu-base eta meta-datuen eskuragarritasuna handitu, azken erabiltzaileek informazioa ondo uler dezaten, eta erabakitzeko prozesuetan datu horiek baliatuz seguru senti daitezken.
- Datu-azpiegiturak erabiliz esperientzia positiboak partekatzen badira, finantza-baliabideak eta saregarapena handitu daitezke

## Biodibertsitateari buruzko informazioa eraginkortasunez erabili

Erabakiak hartzeko prozesuetan, biodibertsitateari buruzko informazioaren erabilera eraginkorra izan dadin, barneko zein kanpoko zenbait faktorek dute eragina, eta azken emaitza alda dezakete. Kanpoko faktoreetan, testuinguru juridiko eta politikoari buruzkoak aipatu behar dira (garapen-legeak, kontserbazio-legeen beste aldean), eskualdeko zein tokiko ekonomia-testuingurua (proiektuen ekonomia-bideragarritasuna), edo presio-taldeen eragina (adibidez, lursailen jabe eta ekonomia-sektoreena).

## 1. jardunbide egokia: SITxell

SITxell (<http://www.sitxell.eu>) Bartzelonako Probintzia Aldundiko udalerriei, tokian tokiko politika eta plangintzetan erabil dezaten, biodibertsitateari buruzko informazioa hornitzen dien datu-azpiegitura irekiaren adibidea da. Diseinu erabilerraza eskaintzen du, eta eskaintako informazioak kontuan hartzen ditu udalerrien erantzukizunak. Haren interpretazioa errazten duen informazioa ematen du, eta hura behar bezala atzemateak eta horrek eragiten dituen inpaktuak epe luzeko finantzaketa eskuratzeko modua ematen du.

Aldiz, barneko faktoreen artean kokatzen dira datu-hornitzaileen sinesgarritasuna eta helarazitako informazioaren fidagarritasuna, tartean direla ziurgabetasunen ebaluazioak (denbora- eta espazio-eskala, arrisku-analisiak, etab.) eta erabakiak hartzeko prozesuetan informazioa erabiltzeko modua (edo unea) ere. Erabakiak hartzeko prozesuetan biodibertsitateari buruzko datuak kontuan hartzeko, ezin bestekoa jotzen da datu-hornitzaileen sinesgarritasuna, ondorengoetan oinarrituta: kidetza politikoetako independentzia, inpartzialtasuna, objektibotasuna, ospe profesionala, gardentasuna eta eragile interesatuen arreta.

*Eskualde arteko BID-REX lehen tailerrera bertaratuak (Namur, Valonia)*



Badira erabakiak hartzeko prozesuetan biodibertsitateari buruzko informazioaren eragina areagotu dezaketen kanpoko zein barneko faktore konbinatuak, adibidez, 'gogoeta-taldeak' sortu eta erabiltzea, ekosistemetako habitaten, espezieen eta zerbitzuen balioa jakinaraztea, eta ikertzaileen eta ikertzaileen arteko informazio-fluxuak hobetzea.

Nabarmendutako faktore konbinatu bat kontserbazio-lehentasanak zein diren hobe zehaztea da, batez ere kontuan hartuz askotariko gizarte- eta ekonomia-eszenategiak daudela, aurrekontu murriztekoak. Lehentasanak ezartzeko erabiltako irizpide batzuk biologiako informazioari lotuta daude, adibidez, kontserbazio-egoera eta izaera juridikoa,

populazioen garrantzia edo/eta banaketa-eremuak, inpaktuekiko sentikortasuna, proiektuaren bideragarritasuna, etab.). Kasu-azterketek agerian utzi dutenez:

- Erabakiak hartzeko prozesuaren aurretik biodibertsitateari buruzko datuak kontuan hartzeak aurrekontu-aurrezpen handiak ekar ditzake
- Ikuskapen-kostuak (neurrien efizientzia areagotzea) neurri ez-hautakorren kostuarekin, kalte-ordainarekin edo balizko pizgarriekin konparatu behar dira
- Garrantzizkoa da habitatak definitzeko orduan arazoei aurrea hartzea eta kontserbazioaren aldeko egoera definitzea. Bestela, argi ez dauden kontserbazio-helburuak jar daitezke

## Baina zein da informazioak kontserbazio-politiketan duen benetako eragina?

Tailerrak iraun bitartean, hainbat adibide partekatu ziren, erakunde sinesgarri eta akreditatuek helarazitako datuak eta informazioa erabiliz, eta biodibertsitatea kontuan hartuz, erabaki hobeak hartzeko moduari buruz. Saiatu ere egin ziren ekonomia-balioa galdu gabe eta, aldi berean, natura-ondarea kontserbatuz, guztiontzako egoera onuragarriak lortu diren kasuak identifikatzen. Eztabaidetan bi gai nagusik jarri zuten hizpidea: erabakiak hartzen dituzten arduradunen eta datu-hornitzaileen arteko konfiantza eta iritzi-elkartrukea.

## Erabakiak hartzen dituzten arduradunen eta datu-hornitzaileen arteko konfiantza

Datu-hornitzaileen eta erabakiak hartzen dituzten arduradunen arteko konfiantza ere garrantzizkoa da biodibertsitateari buruzko informazioa hornitzen jarraitu eta hura erabakiak hartzeko prozesuetan erabiltzeko.

*Aldeek elkarrizketa  
maiz izatea eta  
aurreikuspenak  
asetzen diren edo  
ez maiz ebaluatzea  
elkarren arteko  
konfiantza-giroaren  
oinarria dira.*

Datu-hornitzaileek konfiantza izan behar dute erabakiak hartzen dituzten arduradunarengan, eta helarazten zaizkion datuak ez dituela desbideratuko edo horien esanahia desitxuratuko. Hori lortzeko, elkarren arteko konfiantza-giro bat sortu behar da, hura aldean arteko elkarrizketaren bidez eta alde bien aurreikuspenak asetzen diren edo ez maiz ebaluatuz. Askotariko eragileen arteko elkarrizketa eraginkorra, lehen aipatu den bezala, oso garrantzizkoa da erabakiak hartzeko prozesu osoan. Elkarrizketa hori garatu eta lortzeko, bilkura publikoak antolatzeak harreman berriak ezartzen eta elkartrukea errazten lagun dezake.



## Iritziak eta erantzunak biltzeko prozedura sistematikoak

Iritziak eta erantzunak lortzeko prozedura sistematikoek aukera ematen dute erabakiak hartzen dituzten arduradunek datu-hornitzaileei hartutako erabakien benetako jarraipenari eta hornitutako datuen inpaktuari buruzko informazioa helarazteko. Informazio horrek aldean arteko elkarrizketa aberasten du, eta epe luzera datuak hornitzen jarraitzea errazten du. Datu-hornitzaileen ikuspegitik, erantzun eta iritzi horiek garrantzizkoak dira adierazleak ezartzeko eta datuak hobetzeko eta, iterazio-prozesu baten bidez, erabakiak hartzen dituzten arduradunen beharrezanekin bat egiteko.

### 2. jardunbide egokia: Elia eta Natagoraren arteko lankidetzeta

Elia Belgikako elektrizitate-transmisiorako sarearen kudeatzaileak eta Natagora ingurumeneko gobernuz kanpoko erakunde batek elkarrekin lan egiten dute Belgikan goi-tentsioko aire-lineek ingurumenean eragiten duten inpaktua murrizteko. Elkarrizketa zabal baten ondoren, Natagorak hegaztien talka-arriskuaren mapak hornitu zizkion Eliari. Mapa horiei esker, Eliak gailuak jarri zituen eremu lehenetsietan aire-lineen ikusgaitasuna areagotu eta, hartara, hegaztien talka-arriskua murrizteko. Helarazitako informazioaren eraginez Eliak Natagorako hegazti-behatzaileei emandako iritziek eta iruzkinak datu berriak biltzera zirikatu ditu hegazti-behatzaileak.